

3 ZENBAKIA

2026KO APIRILA/MAIATZA

ZUBIXA

OÑATIKO ALDIZKARIA

XAVIER ZUBIRI

dr. Antonio Gonzalez

BIZKAIKO MARIJESIAK

Itziar Navarro Ibañez

MUSIKA

Jon Bandrés Bengoetxea

OÑATIKO HISTORIA

Idigorastarrak (I)

KAZETARITZA

Miguel Ángel Idígoras Urrezola

**HAIZEAREN
AHOTSETAN**

Iñaki Madison



Adierazpen askatasunaren balioa: kultura eta aniztasuna

Adierazpen askatasuna demokraziaren oinarrietako bat da, baina hortik harago doa: gizarte baten bizitasun kulturalaren neurgailu ere bada. Pertsonak libre hitz egin, eztabaidatu eta iritziak partekatzeko gai direnean, kultura aberastu egiten da. Ideiak elkarrekin kontrastatzen dira, tradizioak berritzen dira eta komunitateek elkarriketaren bidez eraikitzen dute beren nortasuna.

Euskal kulturaren historian, hitz askeak beti izan du leku berezia. Bertsolaritzak, literaturak eta kazetaritzak belaunaldiz belaunaldi balio izan dute gizartearen kezkek eta ikuspegiak plazaratzeko. Plazetan kantuan ari diren bertsolariak, liburuetan idazten duten idazleak eta eguneroko errealitatea aztertzen duten kazetariak tradizio beraren parte dira: hitzaren bidez bere burua ulertu eta azaldu nahi duen herriarena.

Historiak erakutsi digu askatasun hori ez dela inoiz erabat bermatua izan. Garai askotan, zentsurak edo presio politikoek mugatu nahi izan dute. Hala ere, isiltasuna inposatzeko saiakerek sarritan aurkitu dute erantzuna kulturaren eta pentsamendu kritikoa. Horregatik, adierazpen askatasuna ez da soilik eskubide bat; egunerokoan landu eta defendatu beharreko praktika kulturala da.

Kazetaritza kulturean, askatasun horrek berebiziko garrantzia du. Prentsa libre eta plural batek ahots desberdinei lekua ematen die, eztabaida publikoa aberasten du eta gizarteari bere aniztasuna ulertzen laguntzen dio. Ideien pluralitateak ez du komunitatea ahultzen; alderantziz, sendoago eta helduago egiten du.

Informazioa une batean mundu osora zabaltzen den garai honetan, adierazpen askatasuna defendatzea ahots eta ikuspegi aniztasuna defendatzea ere bada. Hori da kultura bizi baten eta elkarriketara irekita dagoen gizarte baten oinarria.

ZENBAKI HONETAN

2

Editoriala: Adierazpen askatasunaren balioa: kultura eta aniztasuna

4

Bizkaiko Marijesiak

Itziar Navarro Ibañez. Etnomusikologoa

11

Musika

Jon Bandrés Bengoetxea. "La hora azul" programaren zuzendaria. Radio Clásica. RNE.

15

Oñatiko Historia.

Oñatiko benetako leinuak: Idigorastarrak (I)

18

Gazteentzako kazetaritza

Miguel Ángel Idigoras Urrezola. Londresko TVEko korrespontsal ohia eta ETBko zuzendari ohia

21

Filosofia: Xavier Zubiri Apalategui

Dr. Antonio González: Filosofian doktore (Madrilgo Comillasko Pontifize-Unibertsitatean) eta Teologian doktore (Frankfurteko Sankt Georgen Filosofia eta Teologia Fakultatean)

25

Haizearen Ahotsetan

Iñaki Madison.

BIZKAIKO MARIJESIAK

ELKARRIZKETA

Itziar Navarro Ibañez

etnomusikologoa



Elkarrizketa Zubixaren eskutik

Elkarrizketa honetan, Itziar Navarro etnomusikologoa Bizkaiko abendu-erronden eta marijesien inguruan egindako doktorego-ikerketaren nondik norakoak azaltzen ditu. Ikuspegi etnomusikologikotik, tradizio honen alderdi musikal eta sozialak aztertzen ditu, baita azken urteetako aldaketak ere. Bere hitzen bidez, abendu-erronden garrantzia eta komunitatearekin duten lotura ulertzeko gakoak eskaintzen dira.

Zerk bultzatu zintuen marijesiak edo Bizkaiko abendu-errondak zure doktorego-tesiaren gai gisa aukeratzera? Zeuk inoiz parte hartu al duzu?

2017tik Soinuenean lan egiten dut (www.soinuenea.eus), Oiartzunen. Herri-musikarekin lotutako museoa eta artxiboa ditugu, eta ni fonotekan aritzen naiz lanean, besteak beste. 2019an ikus-entzunezkoak katalogatzen ari nintzela, Gernikako marijesien grabazio batzuekin topo egin nuen. Jakinmina piztu zitzaidan, eta urte hartan bertan lagun batzuekin erronda batera joan ginen. 2020a urte arraroa izan zen, eta 2021an ofizialki doktoretza-ikerketa hastea erabaki nuen. Ordutik urtero errondetan ibili naiz, Bizkaiko herri desberdinetan.

Tradizio hau ezagutzen ez duen norbaitentzat, nola azalduko zenuke zer diren marijesiak eta zergatik diren gaur egun ere garrantzitsuak?

Abendu-errondak edo marijesiak gabonak iragartzeko egiten diren kantu-errondak dira. Doinu eta kopladi bereziak dituzte, eta Bizkaiko 3 eskualdetan oso errotuak daude. Nik 8 herri edo auzotan egin ditut filmazioak eta elkarrizketak: Lekeition, Ean, Ibarrangelun, Gernikan, Ariatzan, Ibarrurin, Oromiñon eta Iurretan. Hala ere, beste hainbat herritan ere errondak egiten dira, edo koplak ezagutu dituzte.

Kantu-erronda hauek duten garrantzia ez dut nik determinatzen, partehartzaileek baizik. Nik ikerlari bezala esan dezaket, horrelako musika-ekintza partehartzaileek herritarrak hunkitzeko eta elkarrengana biltzeko indarra dutela, eta hori dela haien indargune nagusia. Kopletako batzuk XVII. mendetik dokumentatuta daudela, tokikoak direla, belaunaldiz belaunaldi transmititu direla... Ez dira huskeriak, noski; baina garrantzitsuena kantuaren bidez sortzen den emozioa eta pertsonen arteko harremana da. Ez pentsa XXI. mendean ahoz transmititzen diren erronda-kantuak eta ekintza komunitario musikalak hainbeste direnik.

Zure ikerketan diskurtsoez eta praktikez hitz egiten duzu. Zer esaten digute abendu-errondek gure gizarteari buruz?

Etnomusikologian (edo antropologia musikalean, nahi bada) pertsonak daude ikerketaren erdigunean. Zer egiten dute? Eta zer diote egiten duten horri buruz? Tesian saiatu naiz praktikak deskribatzen (behaketatik eta analititik abiatuta) eta protagonisten diskurtsoak interpretatzen (hau da, zergatik diote protagonistek dioten hori? Zerk mugitzen ditu? Zeintzuk dira ekintza musikala ahalbidetzen duten motibazio extramusikalak?)

Tesian bertan arlo desberdinak aipatzen ditut: emakumeen partehartzea, ibilbideetan aldaketak, koplak moldaketak... Praktikak aldatu egin dira gai horiei eta beste batzuei dagokionean, eta partehartzaileek horiei buruz esaten dituztenak biltzea ezinbestekoa iruditu zait.

Ikerketa historikoaren atala batez ere XX. mendera mugatu dut, alderdi historikoa ez baitzen nire lanaren helburu nagusia (nik abendu-erronden orainaldia ikertu nahi nuen). Hala ere, herri desberdinetako kopladietan XX. mendean euskal gizartea zeharkatu duten prozesu asko antzeman daitezke. Hitzetan, adibidez, garbizaletasun linguistikoa, euskara batuaren aldeko moldaketak edota kasu batzuetan baita aldarri politikoak ere. Musikan, eredu akademiko-koralaren eraginak, esaterako. Oro har, folklorismo deritzon ideologiatik egindako corpusen finkatzeak eta zuzenketak ere.

Orokorrean, errondetan parte hartzen duten pertsonak komunitatea eta tokiko kultura garrantzitsutzat dituzte. Konpromiso maila nabarmen bat dute, auzokide eta herrikideekin uneak konpartitu nahi dituzte, bertako ohitura bati segida eman nahi diote. Hori da haien buruaz eta haien komunitateaz eman nahi duten irudia, eta ekintzaren bidez erakusten dute.



Lekeitioko kantariak. 2022. (Arg. Zazpi T'erdii)

“Orokorrean, errondetan parte hartzen duten pertsonak komunitatea eta tokiko kultura garrantzitsutzat dituzte”



Eako abendu neska-mutilak. 2021. (Arg. Zazpi T'erd))

Zein antzekotasun aurkitu dituzu Bizkaiko herri edo talde desberdinen artean?

Errondek elkarren artean ezaugarri komun batzuk dituzte. Hasteko, corpus poetiko-musikala deitu dudana: hitzak eta doinuak. Funtsean koplak berdinak edo oso antzekoak dira metrikari eta edukian. Gabonetako misterioa kontatzen da batez ere. Aldatzen dena koplari kopurua, ordena, hitzen bat izaten da. Musikari dagokionez, hiru talde melodiko handitan sailka ditzakegu bildutako doinu guztiak. Ahozketasunean sortutako aldaerak aztertzekeo bilduma polita da marijesiena. Bigarren puntu komuna, kantuen formari dagokiona da; egitura galdera-erantzunezkoa da (erresponsoziala). Kopla eta errepika dute herri guztietan. Hala ere, interpretazioa ez da beti erresponsoziala. Talde batzuetan bakarlarri bat edo batzuk hasten dira kantuan, eta talde ugariago batek erantzuten die; beste batzuetan, kopla eta estribilloa egon arren, denek elkarrekin kantatzen dute, hasi eta buka.

Parte-hartzea librea da, eta esan genezake praktika hauek inklusiboak direla, "zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobeto" logikari jarraitzen diotelako. Galdera-erantzun formak eta errepikak parte-hartze hori errazten dute, noski.

Beste ezaugarri komun bat kantuen ahozko transmisioa da. Kantuek ahozketasun marka ugari dituzte (tesian xehe aztertzen ditudanak), eta oraindik ere nagusiki ahoz transmititzen dira. Herri batzuetan entseguren bat egiten da, baina orokorrean kantariak urtez urte kantuek barneratzen dituzte. Idatzizko euskarriak ere erabiltzen dira (liburutxoak, fotokopiak, mugikorak), baina normalena da parte-hartzaileek, errepikatzearen poderioz, testuak buruz ikastea. Era berean, kantu guztiak gehienbat kanpoan interpretatzen dira, eta elizaren esku-hartze zuzenik gabe. Beraz, esan dezakegu gaur egun behintzat kantu estraliturjikoak direla.

Talde gehienek eskea egiten dute (lehen elikagaiak biltzen ziren, orain nagusiki dirua), eta eskea egiten ez dutenen kasuan, historikoki dokumentatua dago iraganean egin izan dela. Bildutakoa taldearen jarduerarako edo gizarte-proiekturen baterako erabiltzen da. Kantu-eskeak oso hedatuta daude Euskal Herrian, batez ere neguko zikloan. Kasu honetan, abendu-errondak besteetatik bereizten dira corpus propioa eta berezitua dutelako.

Eta zein desberdintasun?

Desberdintasunak ez dira gutxi. 9 eguneko errondak ditugu, bederatzirenenak (nik aztertu ditudanak, Ea eta Gernika), eta baita egun bakarrekoak ere (nik aztertutako gainerakoak, adibidez). Iraupena eta ordutegia alda daitezke tokian toki; ilunabarrean, goizaldean edo egun osoan ateratzen dira. Doinu bat edo hiru doinu erabiltzen dituzte. Herri batzuetan hainbat ahotsetara kantatzen da, polibokalitatea osatuz, baina ez beti. Askok a capella kantatzen dute, batzuek makilen edo kanpaitxo baten laguntzaz, baina beste batzuk musika-tresnak ere baliatzen dituzte. Kantariak ez dira talde guztietan berdin kokatzen espazioan. Keinu erritualak ere ez dira guztientzat berdinak.

Aniztasun soziala ere nabarmena da. Kantarien profila aldatzen da herritik herrira: adina, generoa, ideologia. Parte-hartzaile kopurua eta hauen motibazioak ere desberdinak dira. Azkenik, herri batzuetan praktika honek garrantzia sinboliko handia du, baina beste herri batzuetan bigarren mailako ekintza da.

Hain zuzen aniztasun honek erakarrita hasi nintzen gai honetan murgiltzen.

Gipuzkoako zenbait tokitan ere praktikatzen al da edo praktikatzen al zen?

Goierriin topatu dut Hogeitalaugarrena izeneko gabonetako kopla-sorta bat, marijesietako koplekin kointzidentzia asko dituen; doinua desberdina da, ordea. Halere, ikerketaren eremua geografikoki mugatu nuenez, oraingoz ez dut honetan gehiegi sakondu. Denborarekin seguruenik helduko diot hari honi ere.

“Parte-hartzea librea da, eta esan genezake praktika hauek inklusiboak direla, "zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobeto" logikari jarraitzen diotelako.”

Ikuspegi analitikotik, zer esango zenuke abendu-erronden alderdi musikalaz?

Polifonia edo polibokalitatea ulertzeko modu desberdinekin egin dut topo. Gernikan, ahots desberdinak kantatzea praktika definitzen duen zerbait da (beharrezkoa, egiturazkoa), eta beste herrietan polibokalitate hau bera hautazkoa da (gerta daiteke, edo ez).

Gernikan bi ahots daude (tenoreak eta bajuak esaten diete batzuek). Bajuaren ahotsa kantatzen dutenak normalean “bajuak” bezala identifikatzen dira; elkarrekin joan ohi dira taldearen erditik aurrera, gerriko moduko bat osatuz. Dena den, Gernikan badaude pertsona batzuk bai ahots printzipalean bai baxuan ongi moldatzen direnak; baxuak falta direla iruditzen zaienean, ahots honetara pasatzen dira, normalean tenoreena kantatu ohi duten arren. Antolatzaileak saiatzen dira partehartzaileek ahotsen linea modu zehatz batean egin dezaten, “egoki” interpreta ditzaten. Ahots extraofizialak deitu diedan eta harmonikoki okerrak ez diren bestelako ingerada melodikoen kontrako jarrera zuzentzaileak dituzte, entsaioetan eta errondetan, baina hizketaldi informaletan ere.

Gainerako herrietan (kasu gehienetan), kontrara, ikusi dudanez, bigarren ahotsak aukerazkoak dira. Ez dira nahitaezkoak. Nahiko espontaneoak dira, ez daude bereziki finkatuta, eta erosotasunagatik edo norbere borondatez egiten dira. Adibidez, emakumezkoek tesitura kontuengatik egiten dituzte batzuetan, erosoago kantatzeko.

Kanpotik entzunda, polibokalitatea antzekoa da herri batean eta bestean. Baina elkarrizketen bidez, itxuran berdintsua den hori barrutik desberdin bizi dela ondorioztatu dut, hau da, ahotsen ulerkera desberdina dela (egiturazkoa VS hautazkoa). Ideia honetan sakonduta, tradizioa (edo ohiturazko ahozko praktika musikal komunitarioak) ulertzeko modu desberdinak topatu ditut: bata zurrunagoa, formalizatuagoa, instituzionalizatuagoa, akademikoagoa; bestea malguagoa, funtzionalagoa, moldagarriagoa.



Gernikako marijesiak. (Arg. Gernikako Marijesiak)

Kantaerari dagokionean, herritarrei esker eskuratu ahal izan ditudan ikus-entzunezkoetan kantaera tinbratu, indartsu, apaindu eta aberatsak entzun ditut (Lekeition, Ariatzan, Gernikan...). Gaur egungo kantaerak apalagoak, lauagoak eta kasu batzuetan koralagoak dira. Kantuaren teknika eta estetika aldatu egin dira, alegia.

Denboran zehar, zer aldaketa garrantzitsu ikusi dituzu erronda hauetan?

Bilakaera historikoari erreparatuta, parte hartzaileen profila aldatu egin da. Adina, esaterako. Erronda batzuetan (Oromiño, Ea, Ibarrangelu...), haur txikiak eta ume gaztetxoak ikus ditzakegu. Infantilizazio bat antzeman daiteke, aski berria, eta beste herri-ohitura batzuetan ere ematen dena.

Alderantziz, beste talde batzuetan (Gernikan, Ibarrurin, Lekeition...), jubilatuen presentzia nabarmena da azken urteetan, eta zalantzarik gabe, sektore hau taldeari eusteko pieza garrantzitsua bilakatu da.

Bestalde, taldeetako partaide kopurua ere kasu batzuetan asko handitu da. Gernikako errondetan asteburuetan hipertrofia moduko bat gertatu izan da: jende asko (eta ez guztiak kantari); kale kantoietan bakarlariaren erreferentzia galdu eta taldearen atzealdean doazenek atzerapen (“erretardo”) moduko batekin kantatzea... Honek bizipen musikala kaskartzen du, eta deserosotasuna eragiten die ohiko parte hartzaileei.

Iraganean talde txikiak ateratzen omen ziren, nagusiki (orduan eta gutxiago izan, saria banatzean bakoitzari gehiago tokatzen zitzaielako). Errondan ateratzeko motibazioa ere aldatu da, beraz: orain helburu komunitarioago batengatik biltzen da jendea, ez hainbeste helburu ekonomiko pertsonal batekin.

Nola eragiten dio euskal gizartearen sekularizazioak abendu-errondei?

Koplen gaiak gabonekin lotura ukaezina du (abendu santua, Jesusen jaiotza, astoa eta idia, errege magoak...). Elkarrizketatu gehienek, hala ere, kopla horiek eta gabonak eurak birsignifikatu dituzte, hau da, esanahi berriak eman dizkiete: haientzat, eguberriak ez dira elizaren festak, festa herrikoiak baizik. Etxekoekin eta lagunekin elkartzeko, otorduak egiteko eta kantatzeko egunak, aisialdiaz gozatzeko egunak, opariren bat egitekoak (edo ez)...



Iurretako abendua. 2018. (Arg. Iurretako taldea)

Kantu-errondak eta puska-biltzeak, formatu bezala, ez dira kristauak. Noski: kristautasuna mendeetan zehar Euskal Herrian ezarri eta gerora errotu izanak erreperitorio bat sortu du, herriak bere egin duena, eta hori kantu-errondetan erabiltzen da. Esan nahi dudana da, ohitura sinkretikoak direla hauek, elementu ezberdinak nahasten dituztenak.

Horrela, kristautasunarekin lotutako zerbait baino, abendua tokiko ekintza komunitario bat, euskal ohitura bat dela erantzun izan didate. Antolaketa ere halakoa da, herrikoa, elizatik kanporakoa. Talde batzuetan pertsona sinestunak egon badaude (adin batetik gorakoak, batez ere), baina ezin daiteke esan gehiengoaren motibazioa hortik doanik. Gainera, orokorrean, ideologia ezberdinetako jendea dabil abendu-errondetan, taldearen idiosinkrasia desberdina da kasuan kasu. Euskal kulturarekiko eta ohitura honekiko gertutasuna denek dute. Hori da batzen dituen.

Herri txiki batzuetan (Ibarrangelun, Ibarrurin, Iurretan), Frankismopean, apaiz abertzaleak (Domingo Zuluaga, Txomin Artetxe eta Juanito Gallastegi, besteak beste) beren ikasleekin abendu-errondak bultzatzen ibili ziren. Transmisio-bide hau ez da herri guztietan gertatu, baina azpimarragarria iruditzen zait, hala ere. Apaiz horiek euskara eta euskal dantzak irakasten zituzten bezala, abendua ere irakatsi zieten gaztetxoei. Batzuk lan horiengatik errepresaliatuak ere izan ziren. Hain zuzen, diktaduran paradoxa hori eman zen: eliza (instituzio bezala) errejimenaren sostengatzailea izan zen, baina era berean (maila lokalean) haren kontrako erresistentzia antolatzeke espazioak eskaini zituen. Elizaz modu maximalistan hitz egitea ñabardurak galtzea da.

Italiako etnomusikologoengandik ikasi dut, komeni dela bereiztea elizaren liturgia (ofiziala), eta herri-praktikak eta sinesmenak. Etnomusikologo italiar entzutetsu gehienak komunistak edo sozialistak izan dira, eta gehienek herri-praktika erlijiosoak biltzen jardun zuten, hor bizitasun handia topatu zutelako: domestikatu gabeko kantaerak, aurretik zetozen sinesmen zaharragoen eta praktiken itxuraldatzeak, klase-azpiratuen eragiletza aktiboa, komunitatea saretzeko ekintzak, eliza ofizialetik kanporako kontra-botere bat...

Sardinian egin nuen ikerketa-egonaldian, hango irakasle batek esan zidan tokiko herri-erreperitorioa baztertzen zenean, askotan ordezkioak doinu anglosaxoiak (edo estilo musikal anglosaxoiekoak) izaten zirela. Neurri batean egia da hemen ere (Din dan don = Jingle bells, adibidez). Eta kontuz, ni ez nago inolaz ere kanpoko eraginekin kontra! Baina zer pentsatua eman zidan.

Guk nahi ala nahi ez, iragan bat dugu. Iragan horren emaitza da herritarrek gozatu eta transmititu duten herri-erreperitorioaren zati esanguratsu batek zuzenean edo zeharka mitologia kristauarekin lotura izatea. Badira plazetan eta elizetan (edo ermiten inguruan) errepresentatzen diren herri-dantzak (Corpusekoak, adibidez), edota santuen izena duten egunetan ospatzen diren hainbeste erritu. Aztarna hori guztiz ezabatzea oso zaila, ia ezinezkoa; lortuta ere, izugarriko hutsunea utziko genuke. Hutsune hori modu efektibo batean betetzeko gai gara? Adierazpen kultural bat edo erritu kolektibo bat bertan beheara uzten dugunean, zer sortzen dugu alternatiba modura?

1970ko hamarkadatik aurrera, euskal gizartea sekularizatzen hasi zen, eta ordutik hona toki batzuetan gai erlijiosoak duten hitzak kantatzea problematiko bihurtu da. Azken urteetan eztabaidak ugaritu egin dira. Lekeitioko ikastolan, hamarkadetan bertako marijesiak kantatu dituzte (ahoz transmititu diren koplak). Duela urte gutxi aldaketa eman da, eta koplak berriak idatzi dituzte (Oles Aroa, Olentzeroa eta negua aipatzen dituzte), doinua mantenduta (herri-kantaera ez hainbeste). Ibarrangelun ere, duela hamarkada batzuk, marijesiak kantatzeari utzi eta eguberrietako kantu laikoen alde egin zuten, baina 2009 urte inguruan atzera egin eta bertako marijesiak berri kantatzen hasi ziren, gaur arte. Ikerketan zehar interesgarria iruditu zait denetarik jarraitzea. Ulertzen dut pertsona batzuk deseroso daudela, praktika batzuetan parte hartzeko koherentzia ideologiko osoa beharrezko dutelako. Abenduaren kasuan ikusi dudanez, sarritan gehiengoak ez du hain jarrera kategorikorik izaten. Gaur gaurkoz, talde gehienetan ez dago ezinegon handirik letrak direla-eta, iraganean eman diren birsignifikazio horiei esker. Kantariak ez dira dotrina bat zabaltzen ari, inondik ere: beren aurrekoengandik jaso dituzten gabon garaiko koplak kantatzen ari dira.



Marijesiei edo abenduari buruzko publikazioak.

Ikerlari bezala eta abendu-errondei dagokionean, aztertutako herrietako dinamikak deskribatu eta interpretatzera mugatu naiz. Ez dut eztabaidetan parte hartu, ez ditut hauspotu nahi izan... Ikerlariak ez gara aktibistak, eta ez gaude aktiboki eragiteko edo epaitzeko, ulertzeko baizik. Batzuen eta besteen motibazioak entzuten eta jasotzen saiatu naiz.

Dena den, nire ustez, Gabonetako misterioa (edo kontakizun kristau hori) kondaira edo mitologia bat gehiago izan daiteke; nahi dugun bezala moldatu eta berrinterpretatu dezakegu. Niretzat elizak mendeetan izan duen rol zapaltzailea aitortzea ez dago gabonak ospatzearekin kontraesanean; bi gauza bereizi dira. Nik ez dut hainbestearinoko barne-gatazkarik sentitzen, edo ez dit eragiten behintzat, merkatuaren legeek agintzen duten gizarte batean, errealitate diglosiko betean, heteropatriarkatuan bizita sentitzen ditudan beste kontraesan guztiak baino ezinegon handiagorik.

Koherentzia totala bilatu baino, beste helburu batzuk lehenesten ditut: belaunaldien arteko lotura, adibidez. Gertatu izan zait ludoteka bateko hurrekin eguberrietako erreperitorio laikoa bakarrik landu, eta herriko zahar etxe batera joatean, adineko jendeak eta hurrek kantuak elkarrekin ezin kantatu ahal izatea. Tristeza iruditu zitzaidan, eta zer pentsatua eman zidan.

Azken finean, herritarrek dugu hitza, eta tokian toki erabakiko dugu lehentasuna zeri eman. Erreperitorioan haustura bat ematen bada, ekintzak berekin dakarren hori behintzat ez dadila bertan behera geratu (partaideen arteko harremanak, kantatzea bera, belaunaldiartekotasuna). Eta batez ere, bertatik, eta ahozkotasanaren kodigo batzuk ezagututa eta baliatuta sor ditzagula ohitura zaharrentzako jantzi berriak. Nik horren alde egingo nuke, gutxienez.

Aipatu izan duzu emakumeen parte-hartzea errondetan. Zer eragin izan du aldaketa honek tradizioan?

Dokumentazio idatziaren eta ahozko testigantzen arabera, herri gehienetan XX. mende hasieran errondak gizonezkoenak ziren, Lekeition izan ezik. Herri honetan, alderantziz, emakumezko eskelariak aipatu zituen Resurreccion Maria Azkuek, XIX. mende bukaerako prentsako kronikatxo batean, eta hamarkada pare bat beranduago argitaratu zuen bere kantutegian.

Generoari dagokionean, talde guztiak mixtoak dira gaur egun. Herri gehienetan gatazka nabarmenik gabe eman da aldaketa.

Lekeitioko kasuan, 1986etik aurrera erronda berreskuratu zuten batzokiko emakumeek, eta duela urte batzuk gizonezkoak gonbidatu zituzten errondara, taldea indartzeko. Ean umeen erronda egiten da, eta duela 40 bat urte, urte hartan mutiko gutxi zeudela-eta, neskek ere gonbidatu zituzten. Orduetik abendu-mutilak baino, abendu neska-mutilak dira. Antolatzaileak bi emakume ziren, eta nik uste horrek ere aldaketaren alde jokatu zuela. Uste dut ez dudala aipatu, eta bereziki simbolikoa da despopulatzea jasaten ari den herri txiki batean umeen bederatziurren bat egitea, urtero-urtero.

Gernikan, 1970eko hamarkadatik aurrera hasi ziren emakumeak poliki-poliki taldean sartzen. Hasieran gutxi ziren, baina 90eko hamarkadatik aurrera gero eta gehiago izan ziren. Haiek diotenez, ez zieten etortzea debekatu, baina ez zituzten gonbidatu ere. Gaur egun, taldearen erdia baino gehiago dira.

Gernikan errondara joan nintzen lehen aldietan konturatu nintzen emakumeek oso erregistro baxuan kantatzen dutela, gizonen modura. Gainera, elkarrizketatuek esaten zidaten etxetik entzutean ez zela sumatzen emakumeak abesten ari zirenik. Horrek esan nahi du emakumeak integratu egin zirela, baina kantuak ez zirela nabarmen aldatu. Soinu grabe horretara ohituta zegoen jendea, eta hori zen kanona, edo estetika hegemonikoa. Baina hau 2018an aldatzen hasi zen. Ane Miren Arejita izeneko neska gazte batek bakarlari gisa lehen frogara egin zuen, bakarlari beterrano batek gonbidatuta. Ane Miren sopranoa da, eta bere lehen saiakeretan erregistro grabe horri eutsi zion.



Ane Miren Arejita Labakoan, bakarlari lanetan. 2018 (Arg. Gernikako Marijesiak)

Hurrengo urteetan, baina, beretzat erosoagoa zen erregistroan kantatzen hasi zen, gizonezko bakarlariren nota hartuta, baina zortzidun bat gorago. Emaizta izan zen koroak ez zuela erantzuten jakin; taldearen erantzuna ez zen irmoa izan, nota ohikoa izan arren, tesiturak nahastu zituelako. Pixkanaka taldea ohitzen doa emakume ahots altu bati erantzutera. Batzuek uste dute denborarekin soinu trinkoa lortuko dela, eta bitartean, taldean "soinu-kalitate apur bat galtzeko" prest daude, berdintasunaren alde. Hala ere, kritikak ere entzuten dira. Halako tentsioak herri askotan gertatzen dira, emakumeen parte hartzea jokoan dagoenean. Egia esan, bakarlariaren tonuak badu garrantzia, gizon edo emakume izan; goizaldean tonuari eusteko moduan abestu behar du solistak, eta taldeak ere eroso egon behar du erantzun guztiak emateko. Ez da erronka makala. Soinu-tresnaz lagundutako errondetan, tonuari ongi eusten diote. Baina a capella kantatzen dutenen artean, gora-beherak izaten dira, bereziki Gernikan.

Nolakoa izan da “bizirik dagoen” tradizio bat ikertzea, zeinetan zeuk ere behatzaile hurbil gisa parte hartu ahal izan duzun?

Hasieran beldurrez eta errespetu handiz hasi nintzen. Gogoratzen dut tesi-zuzendariari esaten niola: “nik ez dut ohitura hauetan inola ere eragin nahi! Nahiko nuke gauzak egin ditzaten, ni eta kamerak han ez bageunde bezala”. Eta berak, esperientziaduna denez, esaten zidan: “hori ezinezkoa da”. Horregatik, tesian atal bat eskaini diot nire presentziaren eraginari. Atentzioak eta fokoak beti dituzte eraginak. Behintzat, saiatu naiz ikerketan zehar nire burua “aditu” gisa inoiz ez aurkezten, eta berdinetik berdineraren bitartez.

Tesia amaitu ondoren, zer alderdi geratzen direla uste duzu oraindik ikertzeko marjiesien edo abendu-erronden inguruan?

Beste herrietan bilketak egitea, hitzen azterketan sakontzea (hizkuntzalaritza aldetik, konparatibak eginez), nazioarten egiten diren antzeko praktikak hobeto ezagutzea eta paralelismoak bilatzea... Bide asko okurrizten zaizkit!

Zure landa-lanean zehar, izan al zen ikertzaile gisa edo pertsona gisa bereziki markatu zintuen une edo esperientziarik?

Oro har, abendua hurbildu ahala emozio berezi bat sentitu izan dut, tesia egin bitartean agian intentsoago, baina azken gabonetan (tesia bukatuta) ere antzeko... Nik uste honezkero ziklikoa izango dela, bizi naizen artean... Abendu-garaia berezia izango da.

Momentu asko ditut gogoan... Oso zaila zait bat aukeratzea. Elkarrizketa asko. Detaileak. Errondetako momentu ederrak. Oraintxe Eako antolatzaileak, Maite Landa eta Mari Loli Gorroño etorri zaizkit burura. Mari Loli iaz zendu zen, ustekabean. Gogoratzen dut 2022an Ean bederatziruena ikustera joan nintzen batean (iluntzeko 20:00etan), izugarritzko hotza egiten zuela, eta ohiko moduan ni ondoren Gernikara nindoala (4:00etako errondara). Mari Lolik ikusi zuen eskularrurik ez nuela, eta bere parearen eman zidan. Keinu horiek bihotzean ditut.

Gainera, Ean beti bokadillo bat eskatzen zidaten Txanguru tabernan (normalean, pernile), Gernikara iristerakoan ohera sartu aurretik jan nezan. Ez didate behin ere kafe bat ordaintzen utzi... Baina hau orokorra izan da, herri guztietan. Gaur bereziki oroitu naiz Mari Lolitaz, pasa diren gabonetan errondetan falta zelako. Heriotzak enkajatzeko zailak dira. Falta direnak beti presente daude. Tesia egiten ari nintzela, guri osaba bat ere hil zitzaigun, oso bat-batean. Gogoratzen dut elkarrizketa batzuk bertan behera utzi behar izan nituela. Orduan herrietatik jaso nituen mezuek ere asko hunkitu ninduten.

Kontrapuntu alai bat ematearren, Gernikako marjiesien ondorengo afarira joan naizeneko parrandak ere asko gozatu ditut. Orokorrean errondetan umore ona izaten du jendeak, bestela ez dago hotzak eta nekeak jasaterik!

Zer ekarpen egin diezaieke zure ikerketak tradizio hau bizirik mantentzen duten komunitateei?

Bilketa eta azterketa konparatiboa eskuragarri dute, eta baita ikus-entzunezkoak ere (<http://hdl.handle.net/10803/693455>). Bere xumean, begirada kritiko bat edo hausnarketa bat ere eskaintzen du tesiak hainbat alorren inguruan. Ekarpina mugatu dezakeena da, beharbada, oraingoz formatu akademikoan dagoela: hizkera dentsua (eta gainera, gazteleraz eta ingelesez). Horregatik garrantzitsua iruditu zitzaidan ikerketa herritarrei hurbiltzeko joan den abenduan herrietan aurkezpenak egitea. Lekeition, Gernikan, Ean, lurretan eta Ibarrurin tesiaren ondorioak aurkezten izan nintzen, eta harrera oso positiboa izan zen.

Amaitzeko, zer esango zenioke lehen aldiz abendua kantatzera batu ala ez zalantzan dagoen gazte bati?


Hasteko, gorputzetik bizi beharreko kontua dela: joan, eta kantatu (estribilloetan beti gauza bera errepikatzen da). Gomendatuko nioke, baita ere, letren paperari itsatsita ez egoteko: entzun koplak, adi, eta utzi memoriari bere lana egiten. Bigarren aldiz errepikatzen direnean ezagunagoak egingo zaizkizu, eta konturatzerako errima etorriko zaizu. Doinuak ez dira batere zailak.

Aprobetxatu erronda herriari erreparatzeko, ohartu kantarako zein espazio diren egokiak eta zeintzuk eskasagoak, soinuak nola erantzuten duen toki bakoitzean, inguruan nor duzun, haien ahotsak nolakoak diren... Baserritik baserrirako erronda bat bada, aprobetxatu tarteko momentuak jendearekin nahi duzunaz hitz egiteko (galdetu beldurrik gabe!).

Logistikari dagokionez: lagunekin joatea ondo dago, baina bakarrik bazoaz ere, taldeetan beti oso harrera goxoa egingo dizute, hori ziur.

Erronda pasatakoan halako asetasun bat, betetasun bat sentitzen da. Marketin esaldi bat dirudi, baina benetan: probatu beharra dago zer den jakiteko!

1699. Lezamiz. Koplak. (Arg. Gernikako marjiesiak)



MUSIKA

ELKARRIZKETA

Jon Bandrés Bengoetxea

"La hora azul" programaren zuzendaria. Radio Clásica. RNE.



Elkarrizketa Zubixaren eskutik

Jon Bandrés Bengoetxea kazetaria eta komunikatzailea da, La Hora Azul proiektuari lotua. Bere ibilbidean zehar, informazioaren zorrotasuna eta ikuspegi kritiko eta humanista uztartu ditu. Gaiak sakontasunez lantzeagatik eta errealitate hurbilekiko sentsibilitateagatik nabarmentzen da. La Hora Azul-en bidez, gaurkotasuna, kultura eta memoria soziala elkartzen dituzten elkarrizketa eta hausnarketa guneak sustatu ditu. Elkarrizketa honetan, bere ibilbideaz eta kazetaritzaren egungo erronkez arituko gara berarekin.

Zer oroitzapen lotzen dituzu Donostiako zure haurtzaro eta gaztarotik zure lehen aurkikuntza musikal eta kulturalekin?

Oso gauza desberdinak gogoratzen ditut. Adibidez, urtarrilaren 20 bakoitzean danborra eta barrila jotzea (orden horretan); horretarako asko entseatzen genuen, nahiz eta beti pieza ezagun berak interpretatzen ziren. Udan ere asko ikasi nuen, zarzuela konpainiak etortzen zirenean. Nire ama oso zalea zen, eta lehengusina batek eta biok laguntzen genion. Gaur egunetik begiratuta beste garai batekoa zirudien zarzuela zen, askoz xumeagoa, baina ume baten interesa pizten zuena. Irakurketari dagokionez, eskerrak eman behar dizkiot frantses eskolari, han literaturarekiko eta historiarako interesa transmititu baitziguten; eta nire aitari ere bai, oso ondo eta askotariko liburuak aukeratzeko zituelako eta etxean liburutegi interesgarria zuelako, gaur egun nik gordetzen dudana.

Zure hasierako prestakuntza Zuzenbidean izan zen: noiz eta zergatik erabaki zenuen zure ibilbidea kazetaritza kulturalera bideratzea?

Hasieratik Kazetaritza ikasi nahi nuen eta irratitari eta irratik musikari zaletasun handia nion. Nire aitak aholku eman zidan eta konbentzitu ninduen Zuzenbidea ikas nezana, eta gero nahi nuena egin nezakeela, baina berak uste zuen Informazio Zientzietan existitzen ez zen oinarri sendo batekin. Bere aholkuari jarraitu nion, eta karrera amaitu eta sumario bat eskuetan izan nuenean, esan nion hori ez zela niretzat. Bai berak bai nire amak babestu ninduten Madrilen Kazetaritzako Master bat (UAM–El País) egiteko. Inoiz ez naiz erabaki horretaz damutu.

Atzera begiratuta, zer pertsona, leku edo esperientzia izan ziren erabakigarriak musika klasikoa zure bizitza profesionalaren ardatz bihurtzeko?

Telebistan erredaktore gisa hainbat programatan lan egin ondoren (TVE, Antena 3 Jesús Hermidarekin edo Telemadrid), 1999 inguruan Radio Nacional de Españan sartu nintzen, Radio 5ean kolaboratzaile gisa. Han “Música para dos” izeneko saioa egiten nuen, musika arinagoan, herrikoian, ez klasikoan oinarritua. Zuzendariak beste saio bat nahi zuen, egunerokoa, klasikoari eskainia. Fernando Argenteri eskatu zion, baina hark ezin zuen. Beraz, bere ezezkoiari esker amaitu nuen nik egiten. Eta haren lankide Arceli González Campa izan zen gidatu ninduen, liburuak eta grabazioak gomendatuz hasteko. Gero dena berez etorri zen, Radio 5eko exigentzia-maila ez baitzen Radio Clásicokoa bezalakoa. Eta musika kultura gustatzen bazaizu, obra batek beste batera eramaten zaitu; gustatu zaizun interprete batek konpositore berri bat deskubriarazten dizu. Edo poema batek melodia batera eramaten zaitu, eta honek genero oso bat eta konpositore asko ezagutarazten dizkizu...

Radio Clásicoko zuzendari ohia zaren aldetik, nola definituko zenuke gaur egun musika klasikoari eskainitako irratik publiko baten kultur misioa aro digitalean eta komunikazio modu berrien garian? Hobeto funtzionatzen dute grabazioek ala zuzeneko emisioek? Zer ekartzen du formatu bakoitzak?

Galdera oso konplexua da eta uste dut oraindik inork ez duela erantzuna. Badago publiko bat, adin ertainekoa batez ere, gure mezua interesatzen zaiona, musika lehen planoan baina hortik harago ere bai. Denborarekin Radio 3ko eskaintza kulturala entzuten zuten pertsonak Radio Clásicara pasatzen dira. Misioa ondare hori zabaltzen jarraitzea litzateke, modu atseginean, super adituak ez direnak baztertu gabe. Baina zaila da, nahi duzun musika guztia plataformetan aurki dezakezulako, eta irratia entzutea beste istorio bat da, beste belaunaldi batekoa dirudiena. Podcast-ak ere badaude (saio bakoitza amaitzean sortzen ditugunak), eta entzuteko beste modu bat dira, jende gehiagorengana irits daitekeenak. Iraultza bat izan zen, lehen entzuleak ezin baitzuen saio bat berriz entzun, eta orain RNEren emisio artxibo handira edonork sar daiteke.

Zuzenekoaren eta grabatuaren artean, bai saioetarako bai kontzertuetarako, nik pertsonalki lehenengoa nahiago dut. Saioetan, zalantzarik gabe, zuzeneko beste maila bat da, nahiz eta irratik guztietan bi formulak elkarrekin bizi diren behar agerikoengatik. Egiazkoagoa da, komunikazio autentikoagoa. Baina, jakina, mundu osotik UERen bidez eskaintzen diren kontzertu asko daude, eta zuzenekoan grabatutako ikuskizun bat gerora emititzeak ere baditu abantailak, dokumentatzeko eta kontakizuna ondo prestatzeko denbora gehiago ematen duelako.



La Hora Azul-ek oso zigilu bereizgarria du: nola deskribatuko zenuke bere entzuleria eta zer entzuteko modu proposatzen du saioak?

Ez ditut nire entzule guztiak ezagutzen, baina batzuk bai. Badira intelektualak, musikariak, idazleak, marrazkilariak (badugu bat, Da rifé, X-en ia egunero saioaren gai nagusia ilustratzen duena). Oro har, kultura interesatzen zaien pertsonak dira, prestakuntza izan ala ez. Kontatzen dizkiegun istorioetan —lau kolaboratzaile erregularren laguntzaz— literatura mota eta garai desberdinetako istorioen (antzerki-argumentuak ere bai) eta haiekin zerbait komun dutela uste dugun musiken arteko bideak marrazten ditugu. Entzuleek ere esaten digute gonbidatuak elkarrizketatzeko modu hurbilagoa, gizatiarragoa eta akademiko gutxiagokoa gustatzen zaiela; kultura ezagutza erakustaldi bihurtu gabe lantzea, komunikabideetan batzuetan gertatzen den bezala. Rosa Monterok aholkatutakoari jarraituz, elkarrizketatzailearen jakin-minetik abiatzen gara, batzuetan gai xume eta egunerokoez galdetzeko, diskurtso akademiko edo instituzional batek baino gehiago kontatzen digutenak; halakoetatik ihes egin behar dela uste dut, salbuespen oso berezietan izan ezik.

Zer inspiratzen dizu bereziki programan proposatzen duzuen musikaren eta literaturaren arteko gurutzaketak?

Eguneroko lanetako bat da musika bat testu batekin lotzea: artikulua bat, eleberririk baten zatia, Lur Sotuela bezalako idazle batek berriaz sortutako kontakizun bat (euskal jatorrikoa bera ere), edo baita albiste bat ere. Zaila izan daiteke edo erraza, baina batez ere aberasgarria da, bi lan desberdinetatik abiatuta nolabait zerbait berria “sortzen” ari zarela. Testuko hitz bakar batek eraman zaitzake...

Nola integratzen dituzu musika klasikoa beste diziplina batzuekin, hala nola literatura, arte eszenikoak edo pentsamendua, zure saioetan?

Neurri batean aurreko galderan azaldu dut. Lotura ia modu magikoan aurkitzen duzu, intuizioari jarraituz. Eta, jakina, pilotutako esperientziak eta bi munduen ezagutzak errazten dute testu baterako musika aurkitzea edo alderantziz; batzuetan musika hori programatu nahi duzu eta hark beste testuinguru batean sortutako hitz zehatz batzuetara eramaten zaitu. Edozein kasutan, lan sutsua da, eta entzuleek oso landuzat jotzen dute, atzean lan handia dagoela nabaritzen dute. Ez dut ahaztu nahi RNEren Artxibo handia (eta han lan egiten duten lankideak), hitz eta musikazko benetako altxorak daudelako, beste irratirik batek maila horretan ez duen ondare historikoa.

Óscar Valero arkitekto eta artistak Bachen partiturak margolanen bidez interpretatzen ditu: nola ikusten duzu kultura klasikoaren eta gaur egungo beste adierazpen artistiko batzuen arteko elkarrizketa hau?

Liluragarria. Eta ez da bakarra. Eduardo Chillidarentzat eta beste sortzaile askorentzat musika laguntzaile eta espazioa eta denbora ikertzeko hari gidari izan da. Bestalde, garai guztietako musikan —eta bereziki garaikidean— ohikoa izan da obra plastiko batetik abiatuta musikalki sortzea; hor dago, adibidez, Morton Feldmanen Rothko Chapel. Orain zuekin hitz egiten dudala, gogoratzen dut gutxienez bi obra musikal daudela Arantzazuko Basilika bezalako monumentu garrantzitsu batean inspiratuak. Bata Arturo Duo Vitalen Benedicta oratorioa da, eta bestea organorako obra bat, Cripta, uste dut eskultoreak berak konposatua.



Uste duzu Euskal Herrian behar bezala zaintzen ari direla musika klasikoa eta kultura, bereziki gazteen artean?

Egia esan, urte asko daramatzat Madrilen bizitzen eta ez dut nahikoa ezagutza alderdi zehatz horri erantzuteko. Bai sentitzen dut musikarekiko interes handia dagoela; hala badakit. Hezkuntzaren gaia, ordea, zintzoki, ez dakit. Oro har, Espainia osoan dirudi gazteek (salbuespenak salbuespen) ez dutela aurreko belaunaldiek izan zuten bezain prestakuntza zabal eta askotarikoa, nahiz eta, adibidez, Erasmus bezalako aukerak izan dituzten. Zaila da ulertzen, hizkuntza gehiago ikasteko eta Europa osoan ikasketak jarraitzeko aukera izan dutela kontuan hartuta.



Radio Clásica bezalako irrati batean, zer leku dute Aita Madina edo Juan Crisóstomo de Arriaga bezalako figurek?

Programa bakoitzean musika aukeraketa librea da. Nik pertsonalki, Europako musikara gehiago jotzen dudanez, nolabait “behartu” egiten dut neure burua Espainiako musikari tarte bat gordetzera. Eta horren barruan, arrazoi askorengatik, euskal musikak leku nabarmena du. Aipatutako konpositoreek eta beste batzuek —Aita Donostia, Escudero, Garbizu, Guridi, Almandoz, Aranbari eta Sorozábal— entzuten dira eta kontuan hartzen dira bai Radio Clásicako saioetan bai kontzertu-programetan, ez bakarrik Euskal Herrian.

Euskal Herrian talentu musikal berriak agertzen ari al dira ikusgarritasun handiagoa merezi dutenak?

Arrazoi familiarrengatik gehiago ezagutzen ditut (nahiz eta elkarrizketatu ere egin ditudan) jada sendotutako figurak, hala nola Ramón Lazkano konpositorea edo Josu Okiñena pianista; talentuduntzat eta laguntzat ditut. Azken hilabete honetan, Gasteizko Aurelio Viribay pianista dela medio, bi euskal interprete oso interesgarri ezagutu ditut: Naroa Intxausti, Bilboko sopranoa eta opera abeslaria, eta Luken Munguira, Pasaiaiko tenorra, Viribayrekin euskal kantak grabatu dituen lehen aipatutako konpositore batzuenak. Emaizta hunkigarria eta bikaina da.

Abesbatzen musikak sustrai sakonak ditu Euskadin: zer garrantzi du zuretzat, pertsonalki eta profesionalki? Aitortzen al dira jada hil diren tenoreak, hala nola Carlo Munguia, eta gaur egungoak, Donostiako Xabier Anduaga edo Bergarako Carlos Garitano, edo Oñatiko Aitor Biain bezalako zuzendariak?

Uste dut Xabier Anduaga ia guztiok ezagutzen dugula, eta nazio-mugetatik harago ere bai. Interes handiz ezagutuko nuke Aitor Biain eta elkarrizketatuko nuke, abesbatza desberdinen buru egindako lanagatik. Zintzoa izanik, noizean behin abesbatza-zuzendariekin harremanetan jartzen garen arren, normalean ez gara horrenbeste sartzen arlo horretan; gauza bera gertatzen da zarzuelarekin, badiarelako beste saio espezializatu batzuk.


Pertsonalki, konta dezaket Lucia Gómez donostiar sopranoaren ahotsak —senide baten hiletarako harremanetan jarri nintzena— une zail hartan entzun zuten guztiak hunkitu zituela.

Zer balio du zuretzat orkestrak, fundazioak edo kontzertu-zikloak bezalako kultur erakundeekin lankidetzak?

Funtsezkoa da lankidetzan aritzea. Haiiek laguntzen digute ekoizpen eta interpreteekin harremanetan jartzen. Zerbitzu publiko gisa, elkarlana ezinbestekoa da. RCko zuzendari gisa, 2024an Juan March Fundazioarekin 30 urteko lankidetzak ospatu ahal izan nuen. Hainbat saio berezi zuzenean zuzendu nituen, emanaldi musikalekin, eta egiaztatu ahal izan nuen bi erakundeen arteko lankidetzak publiko-pribatua eredugarria dela.

Zer aholku emango zenieke gaur kultura komunikatu nahi duten gazteei, hain aldakorra den testuinguru honetan?

Lehenengo aholkua lehen aipatu dudana da, eta Rosa Monterok berriki eman zidana: jakin-mina (elkarrizketa bati heltzeko eta orotarako). Bigarrena, pertsonalagoa: zuri obra, gai edo pertsonaia bat gustatzen bazaizu, abantaila duzu entzuleari ere gustatzeko. Zure lana zure interesa transmititzea da. Azken batean: utzi zeure buruari senari eta irizpideari jarraitzen.



OÑATIKO HISTORIA

OÑATIKO BENETAKO LEINUAK

IDIGORASTARRAK (I)



La existencia de apellidos genuinamente vascos es un hecho ampliamente reconocido. Sin embargo, cabe formular una cuestión más específica: ¿existen apellidos que puedan considerarse propiamente oñatiarras, es decir, surgidos en Oñati y vinculados originariamente a una casa solar radicada en su término municipal? La respuesta es afirmativa.

Ello no implica que otros apellidos hoy frecuentes en Oñati carezcan de arraigo histórico local, sino que determinados linajes poseen un origen documentalmente acreditado en una casa solar concreta del municipio, y que su denominación procede directamente de ese emplazamiento.

En la tradición onomástica vasca, una parte significativa de los apellidos es de carácter toponímico, en la medida en que identifica la procedencia familiar respecto de un caserío o solar determinado. Cuando un linaje aparece documentado desde el siglo XV o antes vinculado a una vivienda concreta, dicha edificación, o el paraje en el que se sitúa, adquiere la consideración de casa solar del linaje. A partir de ese núcleo originario, el apellido se transmite y se difunde.

Con las debidas reservas y salvando las evidentes diferencias históricas y sociales, podría establecerse una analogía, aunque sin equivalente dimensión dinástica, con los clanes escoceses, en cuanto a la vinculación nominal entre linaje y territorio de origen.

En Oñati se documentan diversos linajes con casa solar identificada. El presente estudio se centra en uno de ellos: el **linaje Idígoras**, que con el transcurso del tiempo se expandió fuera de Oñati y del País Vasco, constatándose su presencia en otras regiones peninsulares, como Málaga o Sevilla, y, de manera particularmente significativa, en diversos territorios de Hispanoamérica.

Conviene recordar que durante los siglos XV y XVI fue habitual la utilización de fórmulas onomásticas compuestas en Oñati y en el conjunto de Gipuzkoa: Ortiz de Idígoras, Ibañez de Hernani, Pérez de Lazarraga, Díaz de Balenzategui, entre otros ejemplos. Esta estructura patronímica + toponímica constituyó un rasgo característico de la onomástica guipuzcoana durante la Baja Edad Media y los inicios de la Edad Moderna. Con el paso del tiempo, en Gipuzkoa tendió a simplificarse su uso, mientras que en Álava la forma compuesta se mantuvo con mayor estabilidad.

¿Quiénes fueron los Idígoras?

El linaje de los Idígoras tiene su origen en la casa solar homónima situada en el barrio oñatiarra de Garagaltza.

Los registros bautismales más antiguos conservados permiten constatar la presencia del apellido en el siglo XVI. En 1541 figura Catherina Ydigoras Garagarza, hija de Martín de Ydigoras y María Pérez de Garagarza. No obstante, la documentación relativa a los Ortiz de Idígoras se remonta a comienzos del siglo XV, lo que confirma la antigüedad del linaje en la villa.

“El linaje de los Idígoras tiene su origen en la casa solar homónima situada en el barrio oñatiarra de Garagaltza.”

En el entorno inmediato de dicha casa solar se localizan diversos topónimos vinculados nominalmente al apellido:

- El topónimo Idigo
- El monte Idigomendi
- Y, en la actualidad, los caseríos:
 - Idigoratsurrekoa
 - Idigoratserdikoa
 - Idigorasgaraikoa

Estas denominaciones evidencian la existencia de un solar originario que, con el tiempo, ha sido objeto de subdivisión. Los calificativos aurrekoa (delantero), erdikoa (central) y garaikoa (superior) responden a una tipología frecuente en la evolución de los caseríos antiguos, que generaban nuevas unidades habitacionales vinculadas a distintas ramas familiares.

En cuanto a la etimología del topónimo, se ha señalado la posible relación con el término vasco *idi* (“buey”). Sin embargo, resulta igualmente verosímil su derivación de *ira* o *iria* (“helecho”), según recoge Cándido Izaguirre en *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*,

El propio Izaguirre menciona el término *Idio-mendi*, referido al monte situado desde Urteagain hacia San Pedro y Urrejola, identificable con el actual *Idigomendi*. Desde esta perspectiva, Idígoras podría vincularse asimismo con *ihí* (“junco”) y la forma *IHIA-GORANTZ*, interpretada como “juncal en la cumbre”, en referencia al citado monte.

En cualquier caso, puede afirmarse que el origen remoto de los actuales portadores del apellido Idígoras se sitúa en esta casa solar del barrio de Garagaltza, en Oñati.





La primera referencia documental

Probablemente la referencia documental más antigua conocida hasta la fecha sitúa al linaje Idígoras en la primera mitad del siglo XV.

En este contexto emerge la figura de **Rodrigo Ortiz de Idígoras**, considerado el primer miembro relevante del linaje documentado en la villa. Su trayectoria marca el inicio de una línea familiar que mantendrá una presencia significativa en la vida institucional y social de Oñati desde comienzos del S. XV hasta principios del XVII.

La mención más temprana conservada corresponde al año **1434**. En el Archivo de la Casa de Plaza-Lazarraga aparece Rodrigo Ortiz de Idígoras en el documento titulado:


“Discernimiento de la Curaduría de los menores Juan Pérez, Rodrigo, María e Inés, hijos de Martín Ruiz de Lazarraga, constituida en sus parientes más cercanos Rodrigo Ortiz de Idígoras y Pedro Sánchez de Asconiza... Cuentas generales de la curaduría rendidas por Rodrigo Ortiz de Idígoras...” (1434–1447).

Este testimonio reviste especial relevancia por diversas razones.

- En primer lugar, sitúa al linaje Idígoras plenamente integrado en la élite oñatiarra ya en la primera mitad del siglo XV. La designación de Rodrigo como pariente cercano y curador de menores pertenecientes al linaje Lazarraga implica una relación de confianza y proximidad familiar o social de alto nivel.
- En segundo término, el documento establece una vinculación directa entre los Idígoras y el linaje Lazarraga, una de las familias de mayor peso en la estructura política y patrimonial de la villa.
- Finalmente, el ejercicio de la curaduría y la rendición de cuentas correspondientes evidencian que Rodrigo Ortiz de Idígoras no era un vecino común, sino una persona con capacidad jurídica, reconocimiento social y responsabilidad en la administración de bienes.

En **1447** vuelve a documentarse su presencia, esta vez como **escribano en la toma de posesión del Conde Oñati**, circunstancia que confirma su relevancia institucional.

Posteriormente, ya fallecido, su memoria reaparece en 1593 en el pleito criminal seguido con Rodrigo Ibáñez de Alviz, relativo a la acreditación genealógica por los cuatro apellidos. Este proceso fue promovido por Magdalena de Yzaguirre y sus hijos, Andrés y Diego, y en él se le menciona como bisabuelo, lo que evidencia la continuidad genealógica del linaje y la pervivencia de su memoria en el ámbito familiar.



PARENTESCO CON LOS LAZARRAGA

Durante los siglos XV y XVI, la estructura de poder en Oñati estuvo articulada en torno a varios linajes estrechamente vinculados entre sí. Entre ellos destacan los Lazarraga, los Hernani y los Idígoras, además de la casa de los Guevara, titulares del ya condado de Oñati. La presencia documentada de Rodrigo Ortiz de Idígoras en este entramado confirma la temprana inserción del linaje en el núcleo dirigente de la villa.

En el **próximo número** analizaremos dos figuras con el nombre de Juan Ortiz de Idígoras: uno indiano que aparece en una Real Provisión de receptoría junto a Pedro de Arregui, en el pleito que trata con el fiscal licenciado Gamboa, sobre ciertos bienes de **Lope de Aguirre**, y otro, alcalde de Oñati en varias ocasiones. También otros dos Andrés (o tal vez uno) Ortiz de Idígoras, abad de San Miguel y/o camarero y testamentario de los Condes. Y de los Idígoras ferreteros que menciona Jose Antonio Azpiazu en su tesis doctoral.

GAZTEENTZAKO KAZETARITZA

GUTUNA

Miguel Ángel Idigoras Urrezola

Londresko TVEko korrespontsal ohia eta ETBko zuzendari ohia



Miguel Ángel Idígoras, oñatiar jatorri sendoa duen kazetari euskalduna, nazioarteko informazioan espezializatua da. TVEko berriemaile izan zen Londresen eta Marokon, bi herrialdeetako gaurkotasun politiko eta soziala bertatik bertara landuz. Euskal Telebistako (ETB) zuzendari ere izan da. Bere ibilbidean zehar analisiaren zorrotzagatik eta nazioarteko politika zein ekonomiaren ezagutza sakonagatik nabarmendu da. Gaur egun, Kazetaritza ikasi nahi duten edo ikasten ari diren gazteei zuzentzen zaie, bere esperientzia eta lanbidearen ikuspegia haiekin partekatzeko.

Kazetaritzako ikasle maiteok

Zintzoki uste dut, Kazetaritza, Informazio Zientziak, Komunikazioa edo istorioak kontatzea helburu duen ofizio zahar honi gaur egun ematen zaion izena ikasten hasi aurretik, ikasleek biziraupenerako eskuliburu bat eduki beharko luketela, funtzionatuko duen bermerik gabe bada ere. Gure herriko kazetaritza hain dago polarizatuta eta bakoitza bere lubakian gotortuta, ezen gaur hasten diren ikasleek lehenik eta behin egoera honetara nola iritsi garen ulertzen saiatu behar baitute. Eta, noski, hor hasten da lehenengo desengainua. Izan ere, mundua aldatuko duzula sinetsita hasten dituzu ikasketak, eta gero konturatzen zara nahikoa dela hura ulertzen lortzea. Eta, hala ere, sinetsiezadazue, merezi du.

Ni Euskal Herrian hasi nintzen, kazetaritza jarduera kontenplatiboa ez zen garai eta leku batean. Informatzeak ondorioak zituen. Ez naiz epikaz ari, testuinguruaz baizik. Errealitatea ez zen neutroa, ezta atsegina ere. Hitzek pisua zuten. Eta laster ikasten zenuen gauzak beren izenez deitzea ez zela ariketa estetiko hutsa, erantzukizun ekintza bat baizik. Han ulertu nuen kazetaritza ez dela ozenen oihukatzea, baizik eta sinesgarritasunak eta sendotasun profesionalak zarataren gainetik bidea egitea lortzea.

Lehen urte haietan ikasi nuen nire ustez kazetari orok bizitza osoan ahaztu behar ez duen maximo bat: Iritzia askea da; informazioa sakratua. Iritzia emateko jakin egin behar da; eta informatzeko, jakiteaz gain, entzun egin behar da. Askok Guztiei. Baita eta batez ere zure moduan pentsatzen ez dutenei ere. Garai hartako euskal kazetaritzak belarria findu eta adjektibo eta hitz bakoitza neurtzera behartzen zintuen. Eskola zorrotza zen. Ez zuen denbora luzamendurik ematen, ezta arinkeriak onartzen ere. Armeekin fanatismoa inposatu nahi izan zutenek hitzen fanatismoa ere erabili baitzuten haien moduan hitz egiten ez zuena zibilki hiltzeko

Geroago, bizitzak Marokora eramanez ninduen TVEko berriemaile gisa. Maroko, eta oro har mundu arabiarra, ez dira ulertzen liburu bat irakurri, tokiko prentsa jarraituz edo bazkalosteko solasaldi diplomatiko batean parte hartuz. Ulertzen dira kaleetan ibiliz, jendearekin hitz eginez, errealitate soziala ezagutzuz eta herritar arrunt baten moduan biziz. Nire kasuan, atzerrian emaztearekin eta gure lau seme alabeekin bizitzeko zortea izan da; haien bizipenek eta esperientziek herrialdearen errealitatearen ikuspegi zabalagoa eman didate. Marokon ikasi nuen atzerriko kazetaria beti orekan bizi dela: ez da turista, ez diplomatiko, ezta aktibista ere. Ezagutzen duen errealitatea kroniketan islatu nahi duen behatzailea da.

Marokok erakutsi zidan, halaber, presa ñabarduraren etsaia dela. Eta ñabardura, behatzaile onak bakarrik ikusten duen xehetasun hori, kazetaritzaren oxigenoa dela. Atzeritik informatzean, bereziki Maroko bezalako herrialde batetik, kazetari espainiarrak eta are gehiago TVEkoa bada jakin behar du bere hitzak Europako beste edozein herrialdeetatik informatuko balu baino arreta gehiagorekin entzungo direla. Gure hegoaldeko auzokidea ez baita edozein auzokide. Bereziki deserosoa da, eta horrek informatzeko orduan askatasuna eta erantzukizuna eguneroko praktikatzera behartzen gaitu.

Ondoren Londres etorri zen. Eta Londresekin batera, britainiar politika bere gordinetan eta mundu anglosaxoiaren informazio makineria indartsu eta eraginkorra. Britainia Handiko hiriburuan berriemaile izan nintzen garaiaz geroztik, badut ideia bat: ingelesezko hedabideek egungo ordena mundiala moldatzeko indar handiagoa dutela Gerald Ford hegazkin ontziak berak baino. Agentzia anglosaxoi handiek albisteak, irudiak, erreportajeak, elkarrizketak eta abar mundu osoko erredakzioetara helarazteko duten gaitasunak hamarkadetan markatu ditu albistegien egiturak eta ikusle, entzule zein irakurleen egitura mentala. Hizkuntza hispanoduneko munduak badu egiteke lanik, diseinatzen ari den mundu berrian parte aktiboa izan nahi badu. Eta kazetariak funtsezko eginkizuna izango dugu egoera hori irauli nahi badugu.

**“Marokok erakutsi zidan,
halaber, presa ñabarduraren
etsaia dela.”**



Baina gogoeta horietatik harago, berriemaile baten egunerokoak badu nolabaiteko bakardade dotorea. Zure hedabideko erredakzio nagusitik urrun zaude, erabaki azkarrak hartzen dituzu, zure irizpidearekin sinatzen duzu. Eskola bikaina da, zure epai propioan konfiantza izatera behartzen zaituelako, nahiz eta batzuetan sarerik gabeko trapezista baten moduan sentitu. Eta hori askotan ongi dator nire ustez kazetariaren mehatxu nagusia kontrolpean edukitzeko: egoa. Autoestimua, norberarenganako konfiantza eta segurtasuna, edozein jardun profesionalean eta are gehiago telebistan beharrezkoak diren arren, gure etsairik handienak bihur daitezke kudeatzen ez badakigu. Bilatu kazetaritza ona, ez lausengu erraza. Lehenak bizitza osoan lagunduko zaituzte; bigarrena eguzki egunean lainoa bezala desagertuko da.

Utzi orain aholku batzuk ematen, ez errezeta hutsezin gisa, ez baitira existitzen, baizik eta adiskidetasunezko ohartarazpen moduan.

Lehenik, irakurri. Irakurri asko. Irakurri denetarik. Eleberria, saiakera, poesia, atzerriko prentsa, klasikoak eta garaikideak. Hizkuntza menperatzen ez baduzue, hizkuntzak menperatuko zaituzte. Eta bere tresna nagusia kontrolatzen ez duen kazetaria mediokritatera kondenatuta dago. Hizkuntza ez da apaingarri bat: pentsamenduaren egitura bera da. Gaizki idazten duenak okerrago pentsatzen du. Eta okerrago pentsatzen duenak okerrago informatuko du.

Bigarrenik, mesfidatu iritzi azeleratuaz. Gaur tentazioa galdera amaitu aurretik iritzia ematea da. Ez nahastu ikusgarritasuna garrantziarekin. Sare sozialek berehalako ospea eman dezakete, baina sinesgarritasuna iraupen luzeko lasterketa da. Urteak behar dira eraikitze eta minutuak suntsitzeko. Tendentzia bihurtzeko presak ez du laguntzen. Hobe fidagarri izatea. Sareek ere eskertuko dizute.



Hirugarrenik, mantendu jakin mina bizirik. Galderak egiteari uzten badiozue, aldatu lanbidea. Kazetaritza ez da ziurtasunen segida bat, galderen bilduma bat baizik. Jokatu apaltasunez, baina aprobetxatu iristen zaizkizuen aukera profesional guztiak.

Eta, azkenik, onartu huts egingo duzuela. Denok egiten dugu. Kazetari txar baten eta duin baten arteko aldea da bigarrenak zuzendu egiten duela. Argitasunez. Aitzakia barroko gabe. Huts egitea funtsezkoa da ikasteko.

Nire hasieretatik Euskal Herrian, Marokotik eta Londresetik igaroz, eta baita ETB bezalako hedabide publiko bat zuzentzeko arduratik ere, argi atera badut zerbait da kazetaritza pose bat izan daitekeela, munduan egoteko modu bat, baina batez ere ofizio bat dela. Ofizio zorrotza, deserosoa eta, batzuetan, esker txarrekoa. Baina sakonki beharrezkoa.

Bide hau hartzea erabaki baduzue, egin ezazue zorrotzasunez, irakurketaz eta informatzea eta iritzia ematearen arteko muga sotil baina erabakigarri horrekiko errespetuz. Gainerakoa, ospea, txaloak eta polemikak, lagunekin tabernako barran kontatzeko anekdotak besterik ez dira.

Miguel Ángel Idígoras



FILOSOFIA

XAVIER ZUBIRI APALATEGUI

ELKARRIZKETA

Dr. Antonio González

*Filosofian doktore (Madrilgo Comillasko Pontifize-Unibertsitatean) eta Teologian doktore (Frankfurteko Sankt Georgen
Filosofia eta Teologia Fakultatean)*



Elkarrizketa Zubixaren eskutik.
Argazkiak: Fundación Xavier Zubiri.
Gure esker ona Maite López Las Heras itzulpenaren berrikuspenagatik.

www.zubixa.eus

Elkarrizketa Antonio González Fernández doktoreari, Filosofian doktore (Madrilgo Comillasko Pontifize-Unibertsitatean) eta Teologian doktore (Frankfurteko Sankt Georgen Filosofia eta Teologia Fakultatean) eta Xavier Zubiri Fundazioko kidea denari, euskal filosofo bikainaren eta haren pentsamenduaren inguruan.

Nor izan zen, zergatik jarraitzen du gaur egun garrantzitsua izaten eta zer toki betetzen du XX. mendeko filosofian?

Xavier Zubiri zalantzarik gabe XX. mendeko filosofo bikainenetako bat izan zen, pentsamenduaren historiako klasikoaren mailakoa. Filosofian, modako autoreak eta autore klasikoak daudela esan daiteke. Zubirik ez zuen inoiz moda izan nahi; bere asmoa pentsamendu filosofiko original eta zorrotza ekoiztea izan zen, bere garaiaren mailakoa. Alde batetik, Zubiri mendebaldeko tradizio filosofiko handiaren oinordekoa da, zeina Ortega, Husserl eta Heidegger maisuen bidez jaso zuen. Bestetik, Zubirik zientziekin etengabeko elkarrizketan eraiki zuen bere filosofia, eta hori XX. mendeko filosofo gutxik lortu zuten. Horrek toki berezia ematen dio Zubiriri filosofiaren historian.



“Zubiri mendebaldeko tradizio filosofiko handiaren oinordekoa da, zeina Ortega, Husserl eta Heidegger maisuen bidez jaso zuen”

Zeintzuk lirateke Zubiriren garapen intelektualaren funtsezko etapak? Nola eboluzionatzen du bere gogoetak lehen idazkietatik heldutasuneko lanetara?

Zubiri Husserlen fenomenologia jasoz hasi zen; mugimendu horrek Zaragüeta eta Ortega gaztetatik eman zioten arreta maisuei. Horregatik egin zuen lizentziatura-tesia Lovainan, Leon Noël-ekin, Alemaniatik kanpoko fenomenologiaren lehen ordezkarietako batekin. Neurri batean, fenomenologia-erradikaltasuna bitzta osoan zehar mantendu zen bere pentsamenduan. Hala ere, Heideggerren eraginez, oso goiz hasi zen bere buruari galdezka errealitatearen karakterizazio fenomenologikoa egitearen posibilitateaz. Egiaki, fenomenologiaren erredukzioan, gure esperientziaz haraindi dauden gauzak alde batera uzten dira. Gure esperientzian, berriz, gauzak erreal gisa agertzen dira. Zubirik 1920ko hamarkadatik ulertu zuen Aristoteles ikuspegi horretatik irakur zitekeela: gauza errealean esperientzia “funtsezko” gisa deskribatzen zuen filosofoa zela, eta ikuspegi horretatik, hain zuzen, XX. mendeko iraultza zientifiko handien ekarpenak integrazeko balio zezakeela. Horregatik, 1940ko hamarkadatik aurrera, Zubirik berak “errealista” (reísta) deitzen zuen filosofiaren lanketari ekin zion, errealismo klasikoetatik, bakun zein kritikoetatik, bereizteko. Zubirirentzat errealitatea beti gauden zerbait da, nahiz eta azterketa sakonago batean, errealitatearen gure esperientzia kritikatu dezakegun.

Zer-nolako harremanak izan zituen beste filosofo garaikide batzuekin, hala nola Ortega y Gasset, María Zambrano, Julián Marías, López Aranguren edo Heideggerrekin?

Ortega y Gasset erabakigarria izan zen Zubirirentzat; maisutzat zuen, fenomenologia mugimenduaren garrantziaz ohartarazi baitzion, eta harekin bat zetorren errealearen ideia antzekoari buruz: ez gure esperientziaz haraindi dagoen errealitatea, esperientzian bertan agertzen dena baizik. Bizitzan, Ortegak esango lukeen bezala. Heidegger ere maisutzat zuen. Hala ere, Zubiri Friburgora joan zenerako, bere lehen urratsak eginak zituen filosofian, eta Heideggerren pentsamendua modu kritikoa jasotzen zuen. Izan ere, Friburgotik alde egin aurretik, Heideggerrek kide deitu zion, eta lehenago zergatik ez zuen hitz egin galdetu zion. Nire ustez, elkarrizketa hori garrantzitsua izan zen Zubirirentzat ez ezik, baita Heideggerrentzat ere, artean bere pentsamenduan etapa berri bat hasten ari baitzen. María Zambrano, Julián Marías edo Aranguren esaterako, Zubiriren dizipuluen eremukoak dira batez ere, sortzaileak eta oso autonomoak. Izan ere, Zubirik beti uste izan zuen filosofiaren esperientzia pertsona bakoitzean behin eta berriz berregin behar dela; horri dela eta, Zubirik ez zuen jarraitzailerik sortu nahi, filosofoak baizik.



Xavier Zubiri, José Ortega y Gasset y Manuel García Morente

Nola eragin zuen Zubiriren jatorri euskaldunak bere pentsamenduan? Euskara hitz egiten al zuen?

Zubirik umetatik euskaraz hitz egiten zuen. Nire ustez, hizkuntza indoeuroparra ez den hizkuntza bat hitz egiteak eta ondoren hizkuntza semitikoak ikasteak eragin handia izan zuen bere filosofian. Hizkuntza indoeuroparren egitura mentalek asko baldintzatu dute mendebaldeko filosofia. Zubirik Aristotelesi egotzen zion errealitatean proiektatu izana *logos* indoeuroparraren egitura. Pentsa dezagun substantziak akzidenteak sostengatzen dituen eskemetan, edo filosofia modernoaren subjektuan, ekintzen eta pasioen euskarri gisa. Zubirik, eskema subjektual horren aurrean, errealaren egitura-ikusmolde bat proposatzen du.

Sarritan esaten da Zubirik adimenaren ulertzeko modua “aldatzen” duela. Zer esan nahi du berarentzat “adimen sentienteak” esapideak?

Zubirik ulertzen zuen edozein hizkuntzatarako predikazio-egitura nolabait berandu iristen direla adimenaren erroari berari dagokionez. Berarentzat, adimena “sentitzailea” da. “Adimen sentitzailea” esamoldeak esan nahi du giza sentimena bera oroz gain “adimentsua” badela. Horrek esan nahi du ez dela animalien sentimenetik bereizten soilik sentitze bakoitzaren askotariko edukiengatik. Zenbait animaliak batzuek kolore jakin batzuk hautematen dituzte, beste batzuek ez, adibidez. Baina Zubirirentzat sentimena adimentsua da, “errealitatean” mugitzen delako, lehen azaldu dugunaren ildo horretan. Hau da, errealitatea gure sentipenetan gauzak geratzen diren modu bat da. Errealitateak esan nahi du gauzak, gure sentipenean, erabat “beste” gisa agertzen direla, sentituak izateari dagokionez. Hala ez balira ere, horrela agertzen dira. Eta horrek gure sentipenak “adimentsu” bihurtzen ditu oinarriari eta funtsari dagokienez.

“Eta hori litzateke gizakiaren eta animalia-aren arteko desberdintasuna ulertzeko gakoa, baita adimen artifizialarekikoa ere, orain arte ulertu eta diseinatu den moduan behinik behin.”

Zubiriren ideia “giltzarri” bat aukeratu beharko bazenu publiko zabalentzat, zein litzateke?

Adimena, horrela ulertuta, errealitatearekiko korrelatiboa da, lehen aipatutakoaren ildotik. Hori litzateke Zubirik filosofiaren historiari egindako ekarpenik handiena. “Ulermena”ren maila funtsezkoago batean, “gurarizko kontzientzia”ren edo ohiko zentzuan ulertutako adimena baino, Zubirirentzat adimena errealitatearen ulerkuntza da. Eta hori litzateke gizakiaren eta animalia-aren arteko desberdintasuna ulertzeko gakoa, baita adimen artifizialarekikoa ere, orain arte ulertu eta diseinatu den moduan behinik behin.

Zer elkarrizketa ezar daiteke gaur egun Zubiriren eta arazo garaikide handien artean?

Ikus daitekeenez, alde horretatik errealitatea ez da gauzen eremu bat, gure adimenean gauza guztiek duten izaera baizik. Egiazki adimena dagoeneko sentipenaren mailan dago, baina gero hurrengo moldeetan modulatu da, zeintzuei Zubirik *logos* eta arrazoia deitzen dien. Alde horretatik adimenak erreala den oroz jarduten du, eta modu askotan egiten du, horietako bat zientzia delarik. Hala ere, filosofiak ez du zientziak jorratzen dituzten bestelako gaiak jarduten. Ez da fisikoetatik haragoko gaiak aztertuko litzuzkeen metafisika. Zubirirentzat filosofiak zientziak aztertzen dituzten gauza berak aztertzen ditu, baina euren errealitatearen ikuspegitik. Eta hori da, hain zuzen, metafisika: errealitatearen azterketa. Horregatik, filosofia, metafisika gisa, beti dago zientziekin aliatuta: zientziak aztertzen duten bera aztertzen du, baina errealitate izaeraren ikuspegitik.



Nola artikulatzen dira Zubirirengan filosofia, zientzia eta metafisika?

Zubiri ez zen gaurkotasun politiko eta sozialaren iruzkingilea. Haren ustez, filosofiaren benetako ekarpena ez zegoen hor. Norbait gizarte-iruzkingile ona izan daiteke benetako filosofo ona izan gabe. Bere maisuek politikan arduragabe sartu zirenean egin zituzten akats larri batzuk ere ikusi ahal izan zituen. Izan ere, Zubirik bere garaiko errealitate soziala komentatzen jardun izan balu, bere gogoeta asko gaur egun dagoeneko gaindituta egongo lirateke. Filosofiaren ekarpena bestelakoa da. Benetako filosofiak ez digu esaten zer pentsatu behar dugun; geure kabuz pentsatzen irakasten digu. Horregatik dago Zubiriren pentsamendua gaurkotasunez eta indarrez beterik.

Zubiriren ukapena Jainkoari ez, baizik eta kontzepzio desitxuratu bati zuzentzen bazaio, lagun al diezaguke Jainkoaren galdera berriro planteatzen errealitatearen esperientziatik abiatuta, erlijioarenetik baino lehenago?

Pentsa dezagun Ignacio Ellacuríaren kasuan, bere dizipulu hurbilenetakoarenean. Ellacuríak Zubiriren filosofia erabili zuen El Salvadorreko eta munduko errealitatea pentsatzeko, iragan mendeko 1970 eta 1980ko hamarkadetan, zalantzarik gabe gaur egungo egoeratik oso bestelakoa zen testuinguruan. Hala ere, bere garaiko errealitatea pentsatzeko modu hori ez zen nolabaiteko “zubiriar errezeta” aplikazioa izan; ezpada berezko pentsamendu politikoaren lanketa. Hain zuzen ere, filosofia sendo batean oinarrituta zegoelako, ez zen une hartako eskola politikoen errepikapen soil bat izan. Alde horretatik, Zubiriren filosofiak gaur egun ere atea irekitzen dizkie gogoeta etiko eta sozial berriei; gogoeta horiek ez dira izango iraganean esandakoaren errepikapen hutsak, ezta gaur egun denek esaten dutenaren kopiak ere, gure garaiko errealitate aldakorra hobeto ulertzen lagunduko diguten ekarpen originalak baizik.

Zein neurritan irekitzen du Zubiriren filosofiak gogoeta etiko eta sozial baterako atea?

Erljioaren gaiari dagokionez, Zubirik jainkozkoari buruzko gogoeta giza esperientzian errotu nahi izan zuen. Horri “erlijazioa” (“birlotzea” ??) deitu zion. Kontua da errealitatea, erradikalki bestetasuna izanik, aldi berean gu geure burua zer izatea nahi dugun zehaztera behartzen gaituen hori dela. Horregatik gaude errealitateari “erlijaturik” (birloturik), munduan geure burua eguneratzeko modua eratzera bultzatzen gaituen indar gisa. Hori gizakiaren esperientzia erradikala da. Zubiriren ikuspegitik, erlijiozko ohiko planteamendu asko esperientziatik bereizita daude, eta, ondorioz, ez dute jainkozkoaren benetako ikusmoldeirik eskaintzen. Jainkoa objektu gisa agertzen da, ez oinarri gisa. Eta hemen “oinarria” ez da lehen kausa bat, ezta antzeko ezer ere, ezpada errealitateari lotuta egotearen esperientziaren erroa bera.

Zer gomendatuko zenioke gazte bati filosofian hasteko, oro har, eta Zubirirengan bereziki? Zein lan gomendatuko zenituzke hasteko?

Zubiriren filosofian murgiltzeko, baliagarria izan daiteke Sobre la realidad ikastaroa, egun bere lanen bilduman argitaratua dagoena, Alianza argitaletxean. Hortik abiatuta, Inteligencia sentiente trilogia irakurtzera igaro liteke, zeina, neurri batean, Zubiriren obra gorentzat har daitekeen, eta zeinak haren pentsamenduaren ulermen egokirako atea irekitzen duen.



Amaitzeko, zein da gaur egun Xavier Zubiri Fundazioaren eginkizuna? Zein lan-ildo garatzen ditu?

Xavier Zubiri Fundazioa filosofoaren lan osoen argitalpena gauzatzen ari da; dagoeneko hogeita hamar liburuki baino gehiago dira, eta litekeena da datozen urteetan amaitzea. Gainera, Fundazioa ikerketa gune bat da; bertan gordetzen dira Xavier Zubiriren Artxiboa eta filosofoaren liburutegi pertsonala, biak ala biak haren pentsamenduari buruzko ikerketa espezializatuetarako ezinbestekoak. Halaber, Fundazioak liburutegi zabal bat du, eta bertan etengabe gehitzen dira Zubiriri buruzko argitalpen berriak. Bere webguneak ikertzaileentzako laguntza garrantzitsua eskaintzen du, aurkibide telematikoko baten eta bestelako ikerketa-baliabideen bidez. Gainera, Fundazioak urtero bi mintegi antolatzen ditu Zubiriren obra ikertzeko, eta hainbat ikastaro eskaintzen, bai Zubiriren pentsamenduari buruzkoak, bai interes filosofiko eta kulturalako beste gai batzuei buruzkoak. Ikastaro horietako bat Zubiriren pentsamendurako sarrera da; aurrez aurre nahiz telematikoki egin daiteke, eta oso baliagarria izan daiteke haren filosofia ikasten hasi nahi dutenentzat.

HAIZEAREN AHOTSETAN

HITZ EGITEN DAKITENEN DOTOREZIA

Iñaki Madison

Ez dakit arte bat den ala pertsona askok berez daramaten gaitasun bat, baina badakit miresten dudan zerbait dela; horregatik, jendearekin izaten ditudan elkarrizketetan zein besteek beren artean dituztenetan, arreta handiz behatzen dut gizakiok nola adierazten dugun geure burua.

Adierazpen, iritzi edo eztabaidarik txikienaren aurrean ere pertsonak etiketatuak izaten garen mundu honetan, zuhurtzia nagusitzen da gure iritzia askatasunez ematerakoan, bidegabeki epaituak izateko edo gure ideiak hutsaltzat zein baztergarritzat jotzeko beldurragatik. Horregatik, gero eta balio handiagoa ematen diot norberak sentitzen duena adierazteari, besteek zer pentsatuko duten albo batera utzita; hori bai, betiere errespetutik eta ezagunarekiko, berriarekiko zein desberdinarekiko irekitasunetik abiatuta, uste baitut, oro har, elkartzeko gaituzten hariak direla bereizten gaituztenak baino sendoagoak.


Halaber, gustuko dugu besteek gogo irekiko pertsona gisa ikustea, trukerako eta partekatze prest; eta urteek aurrera egin ahala, badirudi gero eta ausartagoak garela geure burua adierazteko orduan. Denok esan dugu noizbait: “nire adinean, berdin zait besteek nitaz zer pentsatzen duten”.

Sarritan galdetzen diot neure buruari non datzan gure jokabidearen dotoreziaren giltza, elkarrizketen bidez ageri den hari sotil horretan; eta aitortu behar dut ideia ugari, zalantzak eta noizbehinkako burutazio ausartak sortzen zaizkidala. Hala ere, badut ziurtasun bat: dena diskrezioan eta zintzotasunean errotzen dela gure harremanetan. Diskrezioa, alegia, gaiak sentiberatasunez eta konfidentzialtasunez tratatzeko gaitasuna. Pertsona dotoreak badaki noiz hitz egin eta noiz entzun; badaki isilpekotasunak gordetzen, txutxumutxuak zabaldu gabe, eta bere hitzen zein ekintzen eragina ulertzen du. Horregatik, besteen pribatutasuna eta duintasuna zaintzen dituen jokabidea hautatzen du. Diskrezioak, halaber, isiltzen jakitea eskatzen du: epaiketa ekar dezaketen iruzkinei uko egitea edo eskatu gabeko iritzia ez plazaratzea. Ez da erraza, jakina, denoi gustatzen baitzaigu azken hitzaren jabe izatea.

Eta hori guztia apaltasunetik: onartuz ez dugula beti arrazoia, ez garela besteak baino ez hobekak ez okerragoak, eta benetan garrantzitsua dela ahalik eta ondoen jokatzeko saiakeria. Izan ere, besteengan ere bada arrazoia, guretik urrun egon arren; eta partekatzearen plazer sakonean datza gure izatearen benetako dotorezia.



“Horregatik, besteen pribatutasuna eta duintasuna zaintzen dituen jokabidea hautatzen du.”



GOMENDATUTAKO LIBURUAK

Zubixa Aldizkaria

Gure langileei buruz

Erredaktore-burua

Ricardo Guisado-Balanzategui

Zuzendaria

Ricardo Guisado-Balanzategui

Euskara

Mkel Zabala eta Carmen Fernández

Aldizkariaren edukiak

Beñat Gallastegui

Lankidetzak

Carlos Marmol

Oñati

www.zubixa.eus

zubixaaldizkaria@gmail.com

[@zubixaaldizkaria](https://twitter.com/zubixaaldizkaria)

ISSN 3101-2957